

BIZITZAN BEHERA

BIZIAN GORA

1

-Joxepa, zertan zabiltz atzera-aurrera?

-Patxi, Bizian Goran hasi dot karrera.

-Amaitzeko orduan zuk egin sarrera?

-Orandik ez dau jatsi San Pedrok barrera.

2

-Beti da gauza ona neurri ta zentzuna

-Maite dauan batentzat ez da erantzuna.

-Ez al dogu guk betetzen

geuk behar doguna?

-Inoiz ez da betetzen ple-plen maitasuna.

3

-Ni mezara banoa al dan gehienetan

-Fedeia ez da neurtzen tenpluko atetan.

-Beti zintzoro nabil ni aginduetan

-Ai, Patxi, Jauna maite bagendu ben

4

-Sartu behar dogu danok komentura?

-Komentura ez baina nahi neuke zerura.

-Onak izan gaitezan gu geure modura.

-Heldu al gara, Patxi, gu geure puntura?

5

-Joxepa, horrek dira prailien kontuak

-Patxi, geuk be badoguz geure talentuak.

-Lehen lez dana hartzeko

ez gara tontuak...

-Zer? Besteak txarrak ta beti geu santuak?

6

-Gaur dana libre dago, lehen dana pekatu.

-Egin dogun apurra ez daigun ukatu.

-Nik ez dot egin txarrik ez dot zer parkatu.

-Ordua baino lehen ez burua juzgatu.

7

-Joxepa, gaur ez dago olako konturik.

-Patxi, ez daigun galdu geuk behintzat bururik.

-Inguruan ez dago nok emon eskurik.

-Bai, jokutzen badogu danok alkaturik.

8

-Joxepa, biok gara lege zaharrekoak.

-Baina izan nahi dogu kristau legekoak.

-Ez dira danak hemen gaur esatekoak.

-Ez gaizala eskutik itzi Jaungoikoak.

9

-Joxepa, zer barri bat sartu jat gogora.

-Jainkoak bialdu nau gaur zure ondora.

-Hasi nahi neuke, baina nondik eta nora?

-Patxi, gure lekua da Bizian Gora.

-Jubilatuta gero
guriak egin dau.

-Jaunaren aurrerako
ezin da esan hau.

-Non eta zertarako
gaur ni nok behar nau?

-Maitatzen jarraitzeko
oraindik ez dau gau.

11

-Andrazkoentzat dira
olako batzarrak

-Gizonentzat hobeto
taberna baztarrak

-Ez nau asko poztuten
hau entzun beharrak

-Maitasunez dinotsuz
gaur Joxepa zaharrak.

12

-Danak ez dira guzur
gaur entzunak hemen

-Patxi, mobidu zaitetz
berandu baino lehen.

-Joxepa izango da
bai, alako baten.

-Baina entzun orduko
rekiempaz amen.

A. Martzel